



## PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

<b>IKASTETXEA</b>	CPED KIROLENE KIIP		
<b>GRADOA</b>	ERDI-MAILA	<b>ZIKLOA/MAILA</b>	2
<b>MODULOA</b>	KIROI ANTOLAMENDUA ETA LEGERIA		

HELBURUAK	EDUKIAK
<p>I. Hasierako etapetako lehiaketen eta ekitaldien antolamendu-egitura aztertzea eta lantzea, eta kirol-teknifikazioko lehiaketen antolamendu-ezaugarriak identifikatzea, beharrezko administrazio-betekizunak, baliabide materialak eta giza baliabideak zerrendatuta, eta horiek arautzen dituen lege-esparrua eta kirolariak erakartzeko estrategiak aplikatuta.</p> <p>J. Talde teknikoen, baliabide materialen eta giza baliabideen antolamendu-ezaugarriak identifikatzea eta aztertzea, kudeaketarako, komunikaziorako eta lankidetzeta-lanerako ezarritako prozedurak aplikatuta, kirol-hastapenez arduratzen diren beste teknikari batzuk zuzentzeko.</p>	<p>1. Lehiaketari buruzko araudia interpretatzen du, eta kirol-antolaketa nazionalarekin eta haren egitura administratiboarekin lotzen du.</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Estatuko kirol-legeria eta horri lotutako araudia: xedea, maila eta aplikazio-eremua.</li><li>- Kirol Kontseilu Gorena. Oinarrizko egitura eta funtzioak.</li><li>- Espainiako kirol-erakundeak: Espainiako Batzorde Olimpikoa, Espainiako Batzorde Paralinpikoa. Oinarrizko egitura eta funtzionamendua.</li><li>- Espainiako kirol-erakundeak: Espainiako kirol-federazioak. Oinarrizko egitura eta funtzionamendua.</li><li>- Kirol-diziplinazko araubidea eta zehapen-prozedurak. Izaera, diziplina-organoen eskumenak: Dopinaren Aurkako Estatuko Agentzia, Kirol Diziplinaren Espainiako Batzordea, Kirol-ikuskizunetako Indarkeriaren Aurkako Batzorde Nazionala.</li></ul> <p>2. Beharrezko baliabide materialak eta instalazioak hautatu eta prestatzen ditu, segurtasun-baldintzak aztertuta eta indarreko araudiarekin lotuta.</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Kirol-instalazioak: kontzeptua eta ezaugarri funtzionalak.</li><li>- Kirol-instalazioetan ingurumena babesteko neurriak:</li><li>- Ura eta energia aurrezte eta eraginkortasunez erabiltzea.</li><li>- Ingurune fisikoko afekzioak. Hondakinak murriztea, birziklatzen laguntzea eta berrerabiltzea.</li><li>- Kirol-instalazioetako segurtasunari buruzko araudia. Erabiltzaile eta langileentzako babes-neurriak.</li><li>- Gizarteko ekintza antisozialen eta kiroleko indarkeriaren aurkako babesa.</li><li>- Larrialdi- eta ebakuazio-planak aztertzea eta aplikatzea.</li><li>- Instalazioetako segurtasunari buruzko informazioa Kirolekoak. Segurtasun-seinaleak interpretatzea.</li><li>- Kirol-ekipamenduak berrikusteko prozedurak.</li></ul>



3. Kirol-hastapeneko eta -teknifikazioko pertsonaren edo taldearen desplazamendua prestatzen du, ezarritako prozedurak eta indarreko araudia aplikatuta.

- Kirol-taldeen joan-etorria antolatzea:
- Kiro-lari- en ezaugarriak, dokumentazio mota eta joan-etorrietarako baimenak, aplikatu beharreko araudia.
- Istripu- eta jarduera-aseguruak hautatzea. Motak eta ezaugarriak. Aplikatu beharreko araudia.
- Kirol-teknikariaren erantzukizun zibila:
- Ezaugarriak eta indarreko araudia. Adingabeei laguntzea edo tutoretza ematea joan-etorrian.
- Kirol-teknikarien arauak eta erantzukizunak bere gain hartzea kirol-taldeen bidaietan.

4. Kirol-hastapeneko eta -teknifikazioko lehiaketetan kirolariak zuzentzen eta laguntzen ditu, eta lehiaketan antolaketa-ezaugarriak aztertzen ditu.

- Kirol-teknifikazioko lehiaketetan parte hartzeko oinarritzko betekizunak aztertzea:
- Inskripzio-prozesua, dokumentazioa eta epeak.
- Federazio-lizentziaren (autonomikoa eta nazionala) izapidetzea eta ezaugarriak.
- Nahitaezko kirol-aseguru izapidetzea.
- Kirol-teknikari- en lehiaketan zehar dituzten eginkizunak eta erantzukizuna aztertzea.
- Kirol-lehiaketan oinarritzko antolamendua eta egitura, fase garrantzitsuenak. Erakundearen eginkizunak.

5. Kirol-klub bat kudeatzen du, hura eratzeko eta abian jartzeko prozedura egokiak aplikatuz.

- Kirol-kluba. Motak, ezaugarriak eta oinarritzko egitura.
- Kirol-klub baten eraketari eta funtzionamenduari buruzko araudia.
- Kirol-klubak eratzeko eta inskribatzeko prozedura.
- Kirol-klub- en finantzaketa-bideak: diru-sarrera propioak, zeharkako diru-sarrerak, erakunde publikoen diru-laguntzak.
- Klubentzako laguntzen eta diru-laguntzen motak eta modalitateak. Izapidetzeko prozedura.
- Administrazioarekiko lankidetz- hitzarmenak: protokoloak, klausulak, eranskinak.
- Kirol-babesa. Motak eta lotutako araudia.



## EBAKUAKETA IRIZPIDEAK

1. Lehiaketari buruzko araudia interpretatzen du, eta kirol-antolaketa nazionalarekin, haren administrazio-egiturarekin eta kirol-diziplinazko araubidearekin lotzen du.

- A. Nazio-mailako kirol-erakunde garrantzitsuenak eta horien funtzioak deskribatu ditu.
- B. Estatu mailako kirol-legeria bere administrazio-egiturarekin lotu du.
- C. Kirol-diziplinazko araubidearen ezaugarriak eta funtzioak identifikatu ditu.
- D. Lehiaketari aplikatutako kirol-diziplinako araubidea deskribatu du.
- E. Dopinarekin, indarkeriarekin eta kirol-diziplina orokorrarekin lotutako arau-hauste eta zehapen garrantzitsuenak azaldu ditu.
- F. Kirol-zehapenak jakinarazteko prozedurak azaldu ditu.
- G. Diziplina-organoen (klubak, federazioak, Kirol Diziplinako Espainiako Batzordea) funtzioak identifikatu ditu.
- H. Dopinari buruzko araudia aplikatzeaz arduratzen diren organoak identifikatu ditu.

2. Beharrezko baliabide materialak eta instalazioak hautatu eta prestatzen ditu, segurtasun-baldintzak aztertuta eta indarreko araudiarekin lotuta.

- A. Kirol-instalazioen ezaugarriak, funtzionaltasuna eta segurtasun-alderdiekin eta ingurumena babestearekin duten lotura deskribatu ditu.
- B. Kirola egiteko beharrezkoak diren ekipamenduek bete behar dituzten segurtasun-irizpideak deskribatu ditu.
- C. Kirol-instalazioetako segurtasunari dagokionez aplikatu beharreko araudia identifikatu du.
- D. Kirol-instalazio bateko segurtasun-seinaleen esanahia eta irismena aztertu ditu.
- E. Kirol-instalazioek eta - ekipamenduek erabiltzaile edo langile guztientzat bete behar dituzten oinarriko segurtasun-baldintzak aztertu ditu, indarreko araudiaren arabera.
- F. Kasu praktiko batean, kirol-instalazio baten larrialdi- eta ebakuazio-planen ezaugarriak aztertu ditu.
- G. Kirol-instalazio batean, gizartearen aurkako eta kiroleko indarkeriazko ekintzen aurka babesteko neurriak deskribatu ditu.
- H. Kirol-instalazio batean larrialdi- eta ebakuazio-planak ezartzearen garrantzia baloratu du.

3. Pertsona edo taldearen lekualdaketa prestatzen du, ezarritako prozedurak eta indarreko araudia aplikatuz.

- A. Bidaia kudeatzeko beharrezko dokumentazioa eta baimenak interpretatu eta bete ditu.
- B. Istripu eta jarduera aseguruiei buruzko araudia identifikatu du.
- C. Istripu-aseguru mota desberdinak alderatu ditu lekualdatze-kasu baten premiekin.
- D. Teknikariak joan-etorrietan taldea kontrolatzeko duten erantzukizuna baloratu du.
- E. Teknikariak taldeak lekuz aldatzeko duten erantzukizunari buruzko araudia interpretatu du.
- F. Bidaia-plana diseinatu du kirolari-talde baten lekualdatze-suposizio praktiko batean.

4. Kirol-hastapeneko eta -teknifikazioko lehiaketetan kirolariak zuzentzen eta laguntzen ditu, eta lehiaketen antolaketa-ezaugarriak aztertzen ditu.

- A. Lehiaketetan izena emateari buruzko dokumentazioa bete du.
- B. Lehiaketen teknikariak duten erantzukizunaren garrantzia baloratu du.
- C. Kirol-hastapeneko edo -teknifikazioko lehiaketa bat antolatzeko faseak identifikatu ditu.
- D. Kirol-lehiaketa bat antolatzeko funtzio garrantzitsuenak deskribatu ditu.
- E. Lehiaketen zehar kirolariaren legezko estalduraren garrantzia justifikatu du: federazio-lizentzia eta kirol-asegurua.

5. Kirol-klub bat kudeatzeko jarduerak egiten ditu, kluba eratzeko eta abian jartzeko prozedura egokiak aplikatuta.

- A. Kirol-klub baten eraketa eta funtzionamendua arautzen duen araudia identifikatu du, haren jardun-eremuaren arabera.
- B. Kirol-klub bat sortzeko beharrezko izapideak identifikatu ditu, haren jardun-eremuaren arabera.



- C. Kirol-klub bat sortzeko eta kudeatzeko dauden finantzaketa-bide ekonomikoak aztertu ditu, haren ezaugarrien arabera.
- D. Kirol-klub baten oinarrizko antolamendu-ezaugarriak deskribatu ditu, eta bere jardueraren xedearekin lotu ditu.
- E. Kirol-klubak kirola egitea errazten duen elementu gisa duen garrantzia baloratu du.
- F. Herri-administrazioekin eta izaera pribatuko beste elkarte batzuekin hitzarmenak egiteko beharrezkoak diren elementuak identifikatu ditu.

**EDUKIEN SEKUENTZIA [Aldi baterako antolaketa, unitate didaktikoak, proiektuak, ikaskuntza-klabeak...]**

UNITATE DIDAKTIKOAK	HELBURUAK	EDUKIAK	EBALUAKETA IRIZPIDEAK
UD Nº 1	I,J	1,2,3,4,5	1,2,3,4,5
UD Nº 2	I,J	1,2,3,4,5	1,2,3,4,5

**METODOLOGIA** [Edukiak antolatzea, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleak taldekatzea, espazioak eta denborak antolatzea, irakasleen eta ikasleen zeregina... ikuspegi inklusibotik].

<b>EBALUAKETA TRESNAK</b> [Ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portafolioak, kontratu didaktikoa...]	<b>KALIFIKAZIOA</b> [Ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]
Oro har, ebaluazio-tresnak honako hauek izango dira: O Bertaratze-kontrola, kalifikazio-irizpideen arabera. O test erako azterketa edo galdera laburrak. O Izaera praktikoko kasuen ebazpen-azalpena. O Irakaskuntza-alderdiren bat diseinatzeke lana.	Derrigorrezko asistentzia: asistentziak gutxienez % 90ekoa izan behar du. % 75-% 90 arteko tartean dauden pertsonen laguntza berreskuratu ahal izango dute lan osagarrien bidez. % 75etik beherakoak bigarren deialdira joango dira, eta bertaratze hori aurrez aurre berreskuratu beharko dute aparteko ebaluazioa egin ahal izateko.  Banakako lana (azken notaren % 30) Moodle



	<p>hezkuntza-plataforman lan egitea eta edozein idatzizko proba egitea.</p> <p>Kasu praktikoen ebazpen-azalpena eta erronka egitea (azken notaren % 50).</p> <p>Ahozko proba. Erronkaren (edo erronken) ahozko defentsa (azken notaren % 20).</p> <p>Modulua deialdi arruntean (jarraituan) gainditzeko, dagokion atalean deskribatutako kalifikazio-irizpide bakoitza gainditu behar da, betiere lortutako azken kalifikazioa 5 puntu edo gehiagokoa bada, eta bertaratzea bete behar da</p>
<p><b>EBALUAKETAREN ONDORIOAK</b> [Indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu- eta metodologia-egokitzapenak, emaitzen analisia, plangintza kritikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...]</p>	

<b>ANIZTASUNARI ARRETA EMATEKO NEURRIAK</b>

<b>BALIABIDEAK ETA BIBLIOGRAFIA</b>

**OHARRAK**

--